

Identitatearen pisua



Gure identitate ofiziala aztertuko dugu fikziozko berri batean pentsatzeko. Zer identitate (bat edo hainbat) sortzen dituguk, eta zein edo zeintzuk sortzen ditu sistemak?

Helburuak

- Fermin Diez de Ulzurrunen obrara eta prozesuetara hurbiltzea.
- Bizi garen sistema ekonomiko eta politikoak identitatea eraikitzeke dituen mekanismoak aztertzea, eguneroko espazioetatik abiatuta.
- Disidentzia identitariorako espazio bat sortzea.
- Eguneroko errealitatea erabiltzea, eraikuntza identitario kontziente baterako agertoki gisa.
- Identitate digitalaren kontzeptua eta datuak sarean lantzea.

Aipamenak

Zer da identitate digitala?: moodle2017-18.ua.es/moodle/pluginfile.php/39736/mod_resource/content/7/identidad/page_03.htm

Identitate digitala - URJC: [youtube.com/watch?v=SN5zBwVPrtM](https://www.youtube.com/watch?v=SN5zBwVPrtM)

Bideo edizioa- DaVinci Resolve: <https://www.youtube.com/watch?v=8VNN1VvDYoM>

Redes sociales e identidad personal - KUBERNÉTICA: <https://www.santiagokoval.com/2012/10/25/redes-sociales-e-identidad-personal/>

Proposamenaren garapena

Aurkezpena

1. Lanak aztertzen ditugu:

- 33430467-J
- *Kill your idols*
- *Erakusketa*

Eztabaida txiki bat irekitzen dugu. Gaia: zer-nolako identitate pertsonala eraikitzen digute —edo eraikitzen dugu— lan horien bidez?

2. 4 edo 5eko taldeetan, galdera hauei erantzuten diegu eta erantzunekin honakoen bi zerrenda egiten ditugu:

- Zer dokumentu ofizialek hitz egiten duten gutaz eta zer informazio ematen duten (NANa, gimnasio-txartela, etab.).
- Geure burua definitzeko zer dokumentu/datu (FB, Instagram...) sortzen ditugun guk eta nola erabiltzen dituzten enpresek, administrazioek, estatuak...

Esperimentazioa / Sorkuntza / Ikerketa

1. 4 edo 5naka egin diren zerrendak erabiliz, inpaktuek gure eraikuntza identitarioan (indibidualean nahiz kolektiboan) duten ehuneko ezartzen dugu.

Adibidea: NANa % 10; Instagram % 25%...

2. Eskultura: ehuneko horiek hiru dimentsioetara nola eraman daitezkeen pentsatzen dugu. Dokumentuak sinbolizatzen dituzten objektuak erabili ditzazkegu eta konposizio bat egin hauekin, formak sortu hainbat material erabiliz (buztina, poliespana, kartoia, plastikoak, zura, harria, janaria, oihalak...).

3. Pertsonaia: fikziozko pertsonai bat sortzen dugu ehuneko horiek iraultzeko (adibidez: NANak markatzen duen nortasunak egingo lukeen bezala jokatzeko edo pentsatzen duen pertsonaia, %100ean). Pentsatzen dugu zer irudi edota zer-nolako soinu, janzkera edo itxura edo ibiltzeko era bezalako aspektu posibleak izanen dituen gure pertsonaiak. Zer datu izan daitezkeen publiko edo ez; aspekturik ukiezinenen artean, zein partekatu daitezkeen edo ez...

4. Bideo-bloga: bideo-blog baterako gidoi bat egiten dugu lehen kapitularako (pilotua), pertsonaia hainbat egoeratan agertzeko: familiaren errezeta bat prestatzen, ongi moldatzen den jarduera/kirol bat azaltzen, lekuren batera bidaiatzeko aholkuak ematen, etab. Oharra: aurrez sortutako eskulturak bideoan agertu beharko du beti.

5. Lanak banatzen ditugu eta bideoa egiten dugu.

6. Grabatu eta editatzen dugu.

Ondorioak eta lerro irekiak

1. Gure sorkuntza-lanak erakusten ditugu, eta sare sozialen batera igoko ote ditugun eta nola igo erabakitzen dugu.

2. Hasierako eztabaida irekitzen da bizi izan dugun esperientziaren ondotik. Zer identitate (bat edo hainbat) sortzen dituguk, eta zein edo zeintzuk sortzen ditu sistemak?